

AAL (Laringektomizatuen Arabako Elkarte)



Pintor Vicente Abreu kalea, 7
945 01 02 78

asociacion_aal@hotmail.com

www.laringealava.org

Laringektomizatuen Arabako Elkarte irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da, eta laringektomizatua bere familia-, gizarte- eta lan-giroan integratzea ditu helburu nagusi.

Elkarteak eskola bat du, profesionalek artatuta, laringektomizatuei hizkera esofagikoa edo erigmofonikoa irakasteko. AAL, gainera, laguntza psikologikoa eta soziala eskaintzen die Vitoria-Gasteizko eta bere probintziako kaltetuei, gaixotasunaren ondorioak gainditu eta erabat senda daitezten.

Beste jarduera batzuk ere egiten dituzte: Laringektomizatuen Elkarteen urteko topaketa, laringektomizatu berriei bisitak ospitaleetan, ibilaldi soziokulturalak, senidetasun bazkariak, mantentze-gimnasia eta tabakoaren aurkako eta usaimena eta dastamena berreskuratzeko tailerrak.

Fundación Vital Fundazioaren lankidetz

AALekiko lankidetz hasieratik izan zen Vital Kutxarekin, eta lankidetz-hitzarmen bat sinatu

zen 1999tik. Laguntzak azalpen-liburuxkak argitaratzeko eta tailerrak eta jarduerak egiteko beharrezko ekipoak erosteko ziren.

Vital Fundazioa erakundea eratu zenetik ere eutsi egin zaio urteko lankidetzak-hitzarmenari, logopedia-foniatriako laguntza-eskolarako eta monitoreak mantentzeko; administrazio- eta kudeaketa-gastuetarako ematen dien laguntzaz gain.